

**ZERAINGO UDALEAN ZERBITZU ANITZETAKO PEOI PLAZA BAT LEHIAKETA
LIBREAREN BIDEZ BETETZEKO DEITUTAKO PROZESUA (2022/07/14ko GAO,
134. Zk. AZ: 2022/08/04, 148. ZK.):**

**LANPOSTUA ESLEITZEKO BEHIN-BEHINEKO PROPOSAMENARI
AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK BALORATZEKO BATZORDEAREN BEHIN-
BETIKO EBAZPENA**

Hautaketa-prozesuari dagokion behin-behineko esleipen-proposamenari alegazioak aurkezteko epea amaituta, Balorazio Batzordeak 2023ko ekainaren 12ko bilkuran, aho batez, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Jarraian aipatzen diren parte-hartzaile hauek aurkeztutako alegazioak ebaztea, honela:

- A.F.A.-k "merezimenduen epean aurkeztutako lan esperientzia aintzat hartzea" eskatu du. Batzordeak alegazioak onartzea erabaki du, aintzat hartzeko oinarria badagoela iritzita.
- J.A.E.-k "deialdiaren oinarriak berrikustea eta alderdi sindikalarekin negoziatzea" eskatu du. Egindako alegazioak ezestea erabaki du Batzordeak, horiek baloratzea organo honi ez dagokiola iritzita.
- I.G.G.-k "puntuazioaren errebisioa" eskatu du. Egindako alegazioak ezestea erabaki du Batzordeak, esperientzia egoki baloratuta eta puntuazioa ongi zenbatuta dagoela iritzita.

BIGARRENA.- Bukatutzat ematea izangaiek epe barruan eta behar bezala egindako alegazioen azterketa eta ebazpena.

HIRUGARRENA.- Alegazioak ebatzi ondoren eta erabakitakoa kontuan hartuta, ondorengo balorazio-zerrenda BEHIN BETIKO bihurtzen da. Hona hemen puntuazioak:

NAN	Izen-abizenak	Titulazioa (30 puntu)	Ikastaroak (10 puntu)	Lan-esperientzia (60 puntu)	GUZTIRA (100 puntu)
***5336**	Pello Etxeberria Agirre	10	2	60	72
***4132**	Amaia Velez de Mendizabal Izuzkiza	5	7	57,96	69,96
***1984**	Jose Antonio Echave Nazabal	0	2	60	62
***8887**	Aaron Fernandez Alfageme	0	8	44,70	52,7
***6565**	Igor Gabikaetxebarria Goikoetxea	5	0	42	47
***5441**	Ekaitz Berasaluce Ostolaza	0	6	40	46
***7513**	Daniel Emparantza Iturbe	15	4	0	19
***9426**	Bernat Berasategui Bengoetxea	15	0	0	15
***9934**	Iraia Ugalde Manterola	15	0	0	15
***1614**	Ricardo Ruiz Garcia	10	0	0	10
***0057**	Igor Martin Niño	0	5	0	5
***7219**	Ibai Gomez Uribe-Echeverria	0	2	0	2
***5662**	Aitor Olano Odriozola	0	0	0	0
***8507**	Ibon Fontan Portu	0	0	0	0
***3747**	Juan Jose Olaizola Aizpuru	0	0	0	0
***3575**	Julen Rodriguez Arozena	0	0	0	0
***9748**	Iñaki Perez Señorena	0	0	0	0
***4546**	Jose Miguel Otaño Garcarena	0	0	0	0
***5094**	Maria Gimenez Mugica	0	0	0	0
***6578**	Joseba Otaegui Saizar	0	0	0	0

LAUGARRENA.- Pello Etxeberria Agirreren izendapenaren proposamena alkatetzara eramatea, zerbitzuetako peoi lanpostua betetzeko Zeraingo udaletxean.

BOSGARRENA.- Deialdiaren Lehenengo Oinarrian (Deialdiaren helburua) ezarritakoaren arabera, prozesu honetan parte hartzeaz gain lehiaketan lor daitezkeen puntu guztien %50 baino gehiago lortu dituzten izangaiak lan-poltsan sartzeko proposatu ditu epaimahai kalifikatzaileak Alkatetzari, lortutako puntuazio-ordenaren arabera.

SEIGARRENA.- Balorazio-zerrendan lehenengo postuan proposatutako lehiakideak behin-betiko proposamen hau argitaratu eta 3 egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu deialdi honetan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak, bai eta baloratutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak ere, salbu eta bere espediente pertsonalean badaude.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lehiakideak dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da deialdiko lanpostura atxiki, eta bertan behera geratuko dira bere jarduera guztiak.

Kasu horretan, Zortzigarren Oinarrian aipatzen den bezala, zerrenda osagarriko hurrengo pertsona proposatuko da, eta horrela hurrenez hurren.

Hori guztia jakinarazten da dagozkion ondorioetarako eta aipatutako hautaketa-prozedura arautzen duten oinarri orokorretan eta espezifikoeetan ezarritakoa betez.

BALORAZIO BATZORDEKO IDAZKARIA

Zerainen, 2023ko irailaren 6an

Maialen Segura Peña